



Gailur Ekaiztsuak

Emily Brontë

Lur behea jo duen benetako saga familiar baten (edo biren) historia da hau, protagonista nagusi bat baduena: Heathcliff, zeinetaz lasai asko esan dezakegun maltratatzaile peto-pettoa dela, eta horrez gain, baita gaizkile hutsa ere, haren gaiztakeriak nahiko larriak izanik, neska gazte baten (Catherine) bahiketa barne, zeina, indarkeria fisiko eta psikologikoaren bidez, eta estortsioaren bidez, bere seme Lintonekin ezkontzera behartuko baitu (Linton hau hil zorian da, hari ere eman dizkion tratatu txar larrien ondorioz), horren helburua izanik ezkontza horri esker neska gaztearen ondasun guztiak bereganatzea, bai bere adopzio-familiari bai auzoko familiari dien mugarik gabeko

gorrotoaren izenean; gorroto bat zeinaren oinarrian “maitasun-harreman” zapuztu bat topatzen dugun, hor ere maltratatzaile petoaren zantzuak jartzen direlarik agerian: obsesio eroa eta “nirea ala lur azpian” maximaren jarraitzaile itsua.

Horrela esanda, liburu honek ez dirudi “inoren gustuko jakia” izan daitekeenik; aldiz, XIX. mendearen erdialdeko eleberririk bikaina da, zeinean, garaiko ikuspegiez eta aje soziologikoez harago, oso ondo egituraturik dagoen gidoi bat eta bere garaian mugarririk izan zen estilo narratiboa bat topatzen baititu irakurleak: familiaren zernahitarako neskamea (Nelly) da sagaren historia arrotz bati (Locwood) kontatzen diona, zeinagatik narrazioak sinesgarritasun aldetik asko irabazten baitu, narrazioaren “orainaldi erreala” eta feed-back etengabeak (Emily Brontë egileak maisutasun eta birtuositate handiz gauzatuak) ezin hobeto konbinatuz, eta, horrenbestez, Literatura Unibertsalaren barruan ongi merezitako leku bat irabaziz.

Gainerakoan, obran agertzen diren pertsonaiak (bai lehen mailakoak bai bigarren mailakoak) oso ondo karakterizaturik daude; bigarren mailako protagonista baten kasuan, Irene Aldasorok Joseph izeneko morroiaren ingeles dialektala egokitu du euskarara, eta horretarako, euskalkiez baliatu da, emaitza oso bitxia erdietsiz.

Irakurleak ez du aparteko arazorik kalitate oneko “kulebroi” honen abenturak eta desbenturak bere egin eta barru-barrutik bizitzeko; zenbaitetan, batek ahaleginak egin behar izaten ditu 112ra ez deitzeko, esanez: *“Mesedez, joan eta atxilo ezazue kabroi alu hori”* (Heathcliff).

Nelly, edo Dean andrea, oso pertsonaia erakargarria da, ez bakarrik narratzaile gisa eta gertaeren lehen mailako lekuko gisa betetzen duen zereginagatik, baizik eta askotan hartu behar izaten dituen erabakiengatik; irakurleak, ordea, batzuetan bere buruari galde egiten dio erabaki horiek hartzea, neskameari baino gehiago, familiari berari ez ote legokiokkeen: kontakatilu, sudurluze edo amodio-estalgile samarra ote, Nelly hau...? Baliteke. Edonola ere, oso ukitu polita, errukitsua ematen dio liburuari

(agian bera izango da pertsonaiarik humanoena, ulerberena, bi familietako kide guztiak hobekien ezagutzen dituen), narrazioaren benetako ardatz egituratzaile bihurtzeraino.

Itzulpena primerakoa da, eta Irene Aldasororen itzulpenekin gertatzen den bezala, oraingoan ere ez dio irakurleari huts egiten. Eleberriari hasiera ematen dion paragrafoko lehen esaldiak baino ez dit arreta erakarri:

1801. ORAINTXE ITZULI NAIZ etxejabea ikusten izanda –kexarazi ahal izango nauen auzotar bakarra bera–. Hauxe bai lurralde ederra! [...]

Aitortu behar dut esaldiaren hasiera (“Oraintxe itzuli naiz etxejabea ikusten izanda”) hainbat alditan irakurri behar izan nuela, haren esanguraz jabetu nintzen arte. Ingeleseko bertsioan ere begiratu nuen, badaezpada ere:

1801 —I have just returned from a visit to my landlord –the solitary neighbour that I shall be troubled with. This is certainly a beautiful country! [...]

Aldasororen asmoa oso ondo ulertu dut, baina, hala ere, ingeles esaldia oso naturala iruditzen zaidan bitartean, nago... euskarazkoa behartuegi ez ote zaion atera.

Kontua hau da: ingelesezko (edo gazteleraezko) itzulpenaren hitzez hitzeko egitura sintaktiko bera erabiltzeko arazoren bat planteatzen al digu euskarak? Adibidez:

1801. ORAINTXE ITZULI NAIZ etxejabea ikustetik –buruhausteak emango dizkidan auzotar bakarra bera–. Hauxe bai lurralde ederra! [...]

Nire galdera hauxe da: “Oraintxe itzuli gara zinematik” = “Oraintxe itzuli gara filma ikustetik” esateko arazorik al daukagu euskaraz...? Ezinbestekoa al da, edo *jatorragoa* al da “Oraintxe itzuli gara filma ikusten izanda” esatea? Esaldia “ikusten dut”, eta bai, esaldiaren asmoa eta planteamendua ulertu ditut, baina... ez nau asebetetzen.

Esaldi hori liburuaren beste nonbait topatu izan banu, ez niokeen aparteko garrantzirik emango, baina Gailur Ekaiztsuak liburuari hasiera ematen dion aurreneko esaldia izateak eraman nau gogoeta hau egitera. Besterik gabe.

Dena den, kontu honen harira, aitortu dut euskararen erabilera jator bat topatu dudala. Hauxe: “Aitarekin hitz eginda gentozen, izeba Rosarioren heriotzaren berri izan genuenean” (Veníamos de hablar con nuestro padre, cuando supimos de la muerte de la tía Rosario).

Gaiz aldatuz, badago liburu honetan azpimarratu nahi nukeen gauza bat: liburu osoari darion larrimina, angustia alegia, bateko zein besteko ankerkeriek sorrarazia. Egilearen biografian kontatzen denez, Emily Brontëren ama hil zenean, haren aitak (oso elizkoia eta elizgizon egina azkenean) elizgizonen seme-alabentzako barnetegi batera bidali zituen seme-alaba guztiak (bost alaba eta seme bat), eta barnetegi hartan tratatu txarrak, zigor fisikoak, hotza eta gosea pasarazi zizkieten (horren ondorioz, Emilyren hiru ahizpa biriketarik gaixotu eta hil egin ziren). Beharbada, barnetegi hartan jasandako larrimina, gizatasunik eza eta maitasun-falta pertsonaia nagusiarengan –

Heathcliffengan– haragitzen dira, eta hark –Heathcliffek– bere aldetik gainerako pertsonaiei helarazten dizkie, bizitza errealean askotan gertatzen den moduan: gorrotatzen bakarrik dakienak azkenean lortzen du bere eraginaren pean daudeneke ere gorrotatzen bakarrik jakitea, karanbola efektuaren ondorioz-edo, nahiz eta, zorionez, liburuan, Heathcliffek kaltetutako pertsonaiek azkenean lortu gorroto horretatik askatuko dituen bide bat aurkitzea. Nolanahi ere, XIX. mendeko emakumeen egoera soziala zeinen delikatua zen ere antzematen da nobela honetako gertaeretan.

Eta orain, pasadizo bat edo liburu honekin izan dudan harreman berezia kontatuko dizuet.

25 urte izango nituen Londresera abiatu nintzenean, ziur ez nekiela noiz itzuliko nintzen, itzuliko ote nintzen. Bosgarren hilabetean, ordea, egonaldia bertan behera uztea erabaki nuen, sei hilabeteko bizileku-baimenaren azken hilabeteari muzin eginda; hala ere, Ingalaterratik (betiko) alde egin baino lehen, geratzen zitzaizkidan azken liberak audio-liburu batean xahutzea erabaki nuen, ingelesarekin neukan erronka “pertsonalari” amore emateko prest ez bainengoen –ingelesaren aldeko borrokak sorginduta nindukan ordurako–, borroka hura –ahozko ingelesarena bereziki– aldeztatik galduta egon arren; beraz, Londres erdialdeko liburu-denda oso ezagun batera jo eta apalategietan bila ibili eta gero... Emily Brontëren “Wuthering Heights” aukeratu nuen.

Audio bertsio eder bat da; antzerki, irrati eta telebistako Patricia Routledge-k irakurria; bi alez osatua, 5 kasete lehen alean eta beste 5 bigarrean (garai hartan kaseteak erabiltzen baitziren audio liburuetan; CD’ak geroago etorriko ziren). Horrez gain, Oxford University Press-ek The World’s Classics bilduman argitaratutako osoko bertsioa ere erosi nuen; eta segituan etxera bidean jarri nintzen.

Uste dut bi aldiz gutxienez irakurri, entzun eta landu nuela audio-liburua. Ezezagunak nituen hitzak atera eta zerrendatu egiten nituen bi zutabetan (ezkerreko zutabearen ingeles hitza eta eskuinekoan gaztelarazko ordaina), ahalik eta hitzik gehien memorizatzen saiatzeko.

Egia esateko, liburu hau bolada batez maisu handia izan nuen ingeles hizkuntzan sakontzeko. Bestalde, 350 orritik gorako audioa ere ingeles fonetikarako sarrera bikaina izan zen, nahiz eta hizkuntza bat “benetan” bizitzearekin ezin audiorik alderatu, hau da, ahozko ingelesa “harrapatzeko” ingeles gizartearen barruan sartzea beste biderik ez dago, amagandik jaso ez dugun hizkuntza batean hitzun ona izateko eman beharreko lehen urratsa hori da-eta (ingeles ikaslerik gehienak ziur aski horrexegatik gelditzen dira hizkuntzaren atarian, Proficiency titulua edo ez dakit zein egiaztagiri izan ala ez).

Labur esanda, Emily Brontëren Gailur Ekaiztsuak euskararen mundura iristea albiste bikaina da, eta zinez pozgarria da ikustea euskal *intelligentsiak* bizirik dirauela eta literatura unibertsalarekin konprometituta jarraitzen duela, krisia gorabehera eta azken urteetan gure “Literatura Unibertsala” bilduma txukun eta maiteak izan duen beharakada gorabehera. Olinpoko jainkoek bizitza agorrekin eta betierekoa emango

ahal diote Literatura Unibertsalari, nondik isuriko baita orobat agorrezin eta betierekoa den gure euskararen gaztetasun eternalaren elixirra!